



“Dut-en kasuan ez zen Yoko Onorik egon”

Xabi Strubell | Musikomanoa

Dut, Anari, Zura, Dj Ura. Izen laburreko musikaria da Xabi, abizenez Strubell.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Dani Blanco

Deitura horrekin aitona Ataungoa duzu, seguru. Koktel molotoff xamarrek gara gu. Ama Iruñekoa eta aita erbesteratu behar izan zen familia batekoa: katalana zuen ama eta ingelesa aita. Pentsa, abizena Austriatik dator!

Kontxo, hortik sortzen da euskal bossa nova! Erronka pertsonala zen bossa euskaraz ematea eta oso modu naturalean sortu da. Euskara edozein estilotara molda daiteke eta “euskal bossa” egitea, “nafar jazzcoredrumandbassa” edota “xiberotar porrusaldateknohopa” eguneko kultur aniztasunaren ondorioa dira.

Ura ardo bihurtzea baino mirari handiagoa da eta! Gure musika oso ur-ardotua dago: bossa entzule zorrotzari rockeroegia irudituko zaio eta rock entzuleari agian goxoegia. Orain odolak eskatzen digu zer edo zer gogorragoa egitea.

Musikari batek esan berri du gurean ez dela aske sortzeko baldintzarik. Nahiko suelto ikusten zaitut nik.

Oro har euskal artistok ez daukagu gure sor-kuntzaz bizibidea ateratzeko aukera. Eta horrek komertzialtasunaren zurrumbilotik askatzen gaitu. Hau da, Euskal Herrian norberak sentitzen dituen beharrei erantzuteko sortzen da. A, eta ni topera nabil fronte guztietan!

Aitortu hemen egia: Dut emakume batengatik hautsi zen.

Dut denborak hautsi zuen, adiskidetasunaren urruntzeak, nekeak, inkomunikazioak,

Atxagaren *big-bang* agian. Momentu batean soilik musika egiten genuen, eta nik lagunartean sortu nahi dut. Kasu honetan ez zen Yoko Onorik egon.

Kuraian ez zinen sartu Duteko beste biak bezala; pena, edo zarata handiegia ateratzen zuten?

Ez zitzaidan aukera planteatu, eta neure bidea hasia nuen. Gainera, ez dut oso gustuko punk-rocka.

Eta maitasunak Anarirekin bi disko iraun zuen.

Anarirekin maitasunak bere horretan dirau. Bidearen puska oso polita egin genuen elkarrekin eta gero bakoitzak berea jarraitu zuen. Itzela izan da ikustea, gertutik zein urrutiagotik, diskoz disko nola joan den handitzen.

Zurarekin ez zarete oraino erre.

Zura talde bat da, sortzen jarraitzeko lagunartek bat. Kantuan hasten gara, besta egiten dugu, elkar maite dugu pilo bat. Disko berri bat egin nahi dugu eta plazarik plaza abiatu. Ezin dut besterik eskatu!

Aizu, Bidasoalde horretan ez du inork lan egiten edo? Denak zarete musikariak!

Asko gara metro koadroko, bai. Musika entzun eta sortzeak mugimendu soziala eratu du: Hondarribian ez da egon gazte asanbladarik, baina musikak oso jende diferentea bildu du, Psilocybe elkartearen. Irunen, Mosku plaza izan da topagunea. Eta musikariak onddo beltzak bezala hazi gara! ■